



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

2024ko ekainaren 5eko 2279/2024 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Basaurin gizarte eraldaketarako sentsibilizazio- eta heziketa ekintzak garatzeko 2024ko udal dirulaguntzak emateko deialdia». BDNS (Identif.): 766186.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/766186>).

Lehenengoa. — Onuradunak

Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak, adibidez: GGKEak, erlijio elkarteak, fundazioak eta horien pareko erakundeak, baldin eta haien estatutuetan, helburuetan, eginkizunetan edo txostenetan berariaz jasota badago garapenerako lankidetzak.

Bigarrena. — Xedea

Gizarte-eraldaketarako sentsibilizazio- eta heziketa-ekintzak izango dira Basauriko herritarrei, orokorrean, edo berariazko talde batzuei, bereziki, zuzendutakoak, baldin eta ekintza horiek txirotutako herrialdeen egoeraren ezaugarriei buruzko prestakuntza ematea (egoera horren arazoak, eta hango komunitateek egoera gainditzeko egiten dituzten ahaleginak ezagutaraztekoak), edo horien egoerarekiko sentsibilizazioa badute helburu. Basauriko herritarrengan konpromiso-jarrera solidarioagoak sustatu nahi dira, iparraldearen eta hegoaldearen arteko harremanak bidezkoagoak eta berdintasunezkoagoak izan daitezzen.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

2024ko maiatzaren 27ko 1859/2024 Alkatetza Dekretuak onetsi ditu Kooperazio Arloaren udal diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak, eta 2024ko maiatzaren 27ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean — 101 zenbakiduna — argitaratu dira.

Laugarrena. — Zenbatekoa

Deialdi honen zenbateko osoa 40.000,00 euro da.

Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea

Hilabete, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu osteko biharamunetik hasita.

Seigarrena. — Diru-laguntzak zurrizteko epea

Gehienez 3 hilabeteko epea egongo da emandako diru-laguntzak zurrizteko, diruz lagundutako proiektua amaitzen den datatik zenbatzen hasita.

Basaurin, 2024ko ekainaren 5ean. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren